ASEPEYO

Asepeyo zerbitzu fitxa

Minbizia edo gaixotasun larria duten adin txikien zaintza

Prestazioaren deskribapena

Lanaldia murriztu behar dutenen diru-sarreren galera konpentsatzen du. Langile hauen soldatak, ondorioz, jaitsi egiten dira, adin txikiko seme-alabak edo euren kargura daudenak, zuzenean, etengabe eta modu iraunkorrean, zaindu behar izateak eraginda, ospitalean dauden eta gaixotasunaren aurkako etengabeko tratamendua jasotzen duten bitartean. Adin txikikoak daukan gaixotasunaren ondorioz, denbora luzez ospitalean egon beharko du edo tratamendu medikoari etxean jarraipena eman beharko zaio, diagnostikoa egin eta ospitalean egon ondoren.

Onuradunak

Gizarte Segurantzaren edozein araubidetan dauden langileak, kasuan kasu nahitaezko gutxieneko kotizazio aldiak egiaztatzen badituzte eta euren lanaldia gutxienez % 50ean murrizten badute, minbizia edo 1148/2011 Errege Dekretuaren Eranskinean bildutako gaixotasun larrietako bat daukan adinez txikia zaintzeko, euren sexua edozein izanda ere.

Prestazio ekonomikoa 23 urtetara arte mantenduko da, adinez nagusi bihurtzen denean, minbiziarekin edo aurretik diagnostikatutako gaixotasun larriarekin jarraitzen badu, eta ospitaleratzeko, tratamendua jasotzeko eta bertan egoten den bitartean zaintzeko beharra bere horretan mantentzen bada, aurreko ataletan adierazitako baldintzei eta egiaztapenei jarraiki.

Era berean, 18 urtetik gorakoek prestazioa jasotzeko aukera izan ahalko dute ere, baldin eta prestazio hau 18 urte betetzeagatik iraungi bada 2022-1-1a baino lehen eta oraindik ez baditu 23 urte bete. Ospitaleratzearen eta etengabeko tratamenduaren baldintza bere horretan mantendu beharko da, eta baita zuzeneko, etengabeko eta zaintza iraunkorra ere.

Prestazio ekonomikoa mantendu ahal izango da hura eragin duenak 26 urte bete arte, 23 urte bete baino lehen, halaber, % 65 edo hortik gorako minusbaliotasun maila bat egiaztatuko balu.

Adinez txikia zaintzeagatik prestazioa jaso duten eta aipatutako prestazioa iraungi zaien langileek, eragindakoak 23 urte bete dituelako 2023ko apirilaren 1a baino lehen, prestazio ekonomikoa berriz eskatu ahal izango dute, baldin eta seme-alabak edo adoptatzeko edo harrera hartzeko asmoz zaintzapean dutenak % 65 edo hortik gorako minusbaliotasun maila egiaztatzen badu 23 urte bete aurretik, eta eskubide hau jasotzeko gainontzeko baldintzak oraindik betetzen badira.

Prestazioaren eragilea minbiziak edo gaixotasun larri berak jota, berriz gaixotzen denean, ez da ospitaleratzearen baldintza berriz bete beharko. Hala ere, berriz gaixotzearen ondorioz, aitorpen mediko berri baten bidez, egiaztatu beharko da, diagnostikoa egin eta ospitaleratu ondoren, tratamendu medikoa jasotzen jarraitu behar duela eta baita ere gurasoak, zaintzaileak, harreran hartu duenak, ezkontideak edo izatezko bikoteak prestazioaren eragilea zuzenean, etengabe eta modu iraunkorrean zaindu behar duela.

Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Bi gurasoek, etengabeko izaerarekin adoptatzeko edo harreran hartzeko asmoz jardundako zaintzaileek, gurasoak, guraso bakarreko familiak direnean, edo eragilearen ezkontideak edo izatezko bikoteak, baldin eta adinez txikiak 18 urte bete baditu, egiaztatu beharko dute Gizarte Segurantzako araubide publikoren batean edo elkargo profesionaleko gizarte aurreikuspeneko mutualitate batean afiliatuta edo alta emanda daudela, bai besteren kontura eta bai norberaren kontura. Subsidioa onartu ahal izango zaio bakarrik guraso, adoptatzaile edo harreran hartutako zaintzaile bati.
- Banatu edo dibortziatuz gero, eskubidea onartuko zaio gaixoarekin batera bizi den gurasoari, zaintzaileari edo harreran hartutako zaintzaileari.
- Lanaldi partzialeko lan kontratuetan, ezin da prestazioa eskatu kontratatutako lanaldia, lanaldi osoko kontratu batekiko % 25 edo hortik beherakoa bada.
- Prestazioa onartu ondoren, 23 urteetara luzatu ahal izango da, baldin eta, diagnostikatutako minbiziak edo gaixotasun larriak jarraitzen badu, 18 urte bete baino lehen eta ospitaleratzeko, tratamendua jasotzeko eta bertan zaintzeko beharra oraindik existitzen bada.

Gutxieneko kotizazio aldiak

Ez zaie gutxieneko kotizazio aldirik eskatuko 21 urtetik beherako langileei, 21 eta 25 urte artekoei, berriz, 90 egun eskatuko zaizkio, prestazioa eskatu aurretiko 7 urteen barruan edo 180 egun, euren lan-bizitza osoan zehar. 26 urtetik aurrera, 180 egun eskatuko zaizkio prestazioa eskatu aurretiko 7 urteen barruan edo 360 egun, euren lan-bizitza osoan zehar.

Langile autonomoek eta derrigorrez kotizatu behar dutenek ordainketa eguneratuta eduki beharko dute eta ondorio horretarako, ordainketa gonbidapena aplikatuko da.

Eskaera prozedura

Eskatzaileak eskaera dokumentazioa osatu beharko du, Asepeyo laguntza zentroetan eskuragarri. Horrekin batera beharrezko dokumentuak ere entregatuko dira (enpresa akordioa, gurasoekin hitzartutako akordioa, etab.)

Subsidio hau jasotzeko eskubidea gehienez 30 eguneko epean jakinaraziko da, dokumentazioa jasotzen denetik aurrera zenbatuta. Epe hori igaro ondoren, Mutualitateak ez badu ebazpenak espresuki ebatzi eta jakinarazi, ulertuko da eskaera ezetsi dela.

Prestazioa hilabeteko epe batez gehi bi hilabeteko beste aldi batez onartuko da, eta azken luzapen horretatik, lau hilabeteko aldiro, zuzeneko, etengabeko eta zaintza iraunkorreko premia bere horretan mantentzen dela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu ondoren.

Zenbatekoa

Egunero sortuko den Asepeyo mutualitateak ordaindutako subsidioak bat egiten du kontingentzia profesionalengatiko ezintasuna araupetzen duen oinarriaren % 100ekin, edo, hala dagokionean, kontingentzia arruntetatik eratorritako oinarriarekin, kontingentzia profesionalen estaldura aukeratu ez denean, lanaldiaren murriztapenarekiko proportzioan.

Ordainketa modua

Asepeyo mutualitateak prestazioa zuzenean ordainduko du, hilaren amaieran.

Eten egiteko kausak

Aldi baterako ezintasun egoeretan, amatasun, aitatasun baimenetan, haurdunaldian arrisku egoeretan eta edoskitze naturalean, eta, oro har, prestazio honekin batera, lan harremana eten egiteko edozein kausa eragiten denean (EEE).

ASEPEYO

Asepeyo zerbitzu fitxa

Minbizia edo gaixotasun larria duten adin txikien zaintza

Iraungitzeko kausak

- Eragileak 23 urte betetzea.
- Adinez txikia zuzenean, etengabe eta modu iraunkorrean zaintzeko premia amaitzea bere egoerak onera egin duelako edo guztiz sendatu delako.
-
- Gurasoetako bat, adoptatzeko edo izaera iraunkorrarekin harreran hartzeko asmoa duen zaintzaileetako bat edo gurasoa, guraso bakarreko familiak direnean, edo eragilearen ezkontidea edo izatezko bikotea euren lan jardueran iraungitzea, eta, ondorioz, Gizarte Segurantzan baja eragitea
- Gurasoetako bat erretiratzea edo lanerako ezintasun iraunkorra eragitea
- Onuraduna lanera itzultzea, lanaldi murrizketa eten eginez
- Lanaldi murrizketarekin bateraezina den edozein lan edo jarduera garatzea
- Eragilea hiltzea
- Prestazioaren onuraduna hiltzea
- Kuotak ordaindu gabe izatea, onuraduna norberaren konturako langilea denean (LAAB)

Kostua

Prestazio honek ez dio enpresari aparteko kargurik eragingo, enpresak Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkion kotizazioekin estaltzen baita.